

Gorputzetik

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Energetikoki, husteko garaia da iraila. Behar eta nahi ez ditugunei joaten uztekoa. Hiltzekoa, bizitzeko. Kanporatzekoa, gure barrerean bizipen eta ezaugarri berriei lekua egiteko.

Haizegoak morkotsez bete ditu bideak. Oinak beren zimelean kolorerik ederrak hartu dituzten hostoen artean sartu ditut. Naturarekin elkartuta, hobe ki ikusten ditugu gure argi-ilunak. Eta gure izaerarekin batzen uzten ez diguten oztopoak askatzen has gaitezke.

Sasoi ona da iraila gorputzetik idazten hasteko. Hitzak polit jostetik harago joa-

ten saiatzeko. Arrazoitik, burutik, zentsuratik, autozentsuratik libre. Kiloka zintzotasun eta eskuzabaltasun eskatzen du horrek. Biluzik ibiltzea itsusiak iruditzen zaizkigun gure aldeak erakutsiz. Gure zauriak. Norbaiti inporta al zaizkio?

Irakurle bezala, idazlea bilatzen dut testuetan. Poza hartzen dut lotzean, konpartitzean, identifikatzean. Agian zuk ere bilatuko nauzu ni.

Nire gorputzak zer berri kontatzen ahal dizun asmatu nahian nabil. Gorputz bakoitza bakarra eta berezia izanik, hamaika istorio izanen ditu seguru, bai-

na azalaren hizkuntza ulertzen ikasi behar dut. Arnasari entzuten, atzamarrei teklak edo boligrafoa jarraian zapaltzen uzten, zuzentasunak eta perfekzionismoak pausatu gabe. Zer kontatu nahi du nire gorputzak? Hori ere aditu behar dut, nahi duena egiten duelako... eta nahi duenean. Bere erranak harrapatze ko kale erdian apunteak hartzen ibili naiz, tarteka koaderno motxilatik atera eta idazten.

Gorputzetik idazteko, sabelari hitza ematen ikasi behar dut oraindik. Hitza sabelari itzultzen. Hitzari sabela ematen. Sabela hitzari bueltatzen. •

Txotxongiloak gara?

**Xabier Mikel
Errekondo**

Hauteskundeak berriro! Azaroaren 10erako agindu ditu Espainiako presidenteak, azkenekoak egin eta sei hilabetera. Laugarren hauteskunde orokorrak azken lau urteotan... Baina ze adar jotze mota da hau! Txotxongiloak gara ala? Ariketarik demokratikoenak omen diren hauetan guztion 560 milioi euro xahutzea larria bada, oraindik eta kezagarriagoa deritzot herritarrokin egiten duten erabilera arin eta maltzurari. Alderdiek ditzatela ordain gastu guztiak, eta Kongresua geldirik dagoen bitartean parlamentariak ordainsaririk gabe gera

bitez. Nork ez ditu entzun iritziok, bologolo dabilta lankideen artean, kalean, tabernan... Bitartean, baina, milioika euro patrikaratzeaz gain, hitz bakoitzeko sudurra luzatzen zaien agintariekin txotxongiloak lez gaituzte erabiltzen, eta iruzurraren erantzukizuna herritarren bizkarrera zamatzen dute hautetson-tziak *beeeerriro* jarritz. Pedro Sanchez artzainak eta aurrerakoi auto izendatutako alderdiek kataklismora eramanez nahi gaituen *España+* otsoari aurre egiteko herritar ardiok *beeeerriro* bozka dezagun erregutuko digute falta diren 44 egunetan guztietan. Betiko leloa lelooi.

Bada, iruzur galant hau behin betirako amaituko bada, nago sistema parlamentarioa bera aldatu egin beharko litzatekeela gehiengo osoak jokoz kanpo utziz. Adibidez, Gubernua gutxienez hiru alderdik osatuz, non alderdi bakoitzak gehienez %35eko ordezkaritza izango zukeen, eta hauteskundeak 4-6 urtera soilik deituz. Hartara legeak halabeharrez Parlamentuaren benetako eztabaidatik, elkarlanetik eta akordioetatik onartuko lirateke. Zailagoa bezain sanoagoa, zalantzarik gabe, baina lobby sozialak eraginkorragoak izango lirateke, eta, aitzitik, lobby ekonomikoak gehixeago sufrutuko... •